

## **DOCENTIA programaren 2022-2023ko deialdia**

***Mondragon Unibertsitateko Zuzendaritza Kontseiluaren erabakia, 2023eko otsailaren 16koa, Unibertsitateko irakasleen irakaskuntza-bosturtekoak ebaluatzeko ohiko deialdia onartu eta argitaratzeko dena.***

Unibertsitateko irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko protokoloa (DOCENTIA protokoloa), Mondragon Unibertsitateko Zuzendaritza Kontseiluak 2023ko urtarrilaren 19an onartu zuena, betetze aldera, Unibertsitateko irakasleen irakaskuntza-bosturtekoak ebaluatzeko deialdia argitaratu da.

### **OINARRIAK**

#### **Lehena.– Xedea**

- 1.– Mondragon Unibertsitateko Fakultateetako (zentro propioetako eta atxikietako) kategoria guztietako barneko irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzea da deialdiaren xedea.
- 2.– Bost (5) urte naturalez osatutako bosturtekoaren gainean egingo da ebaluazioa; urte horiek jarraituak edo etenakoak izan daitezke.
- 3.- Beste bosturteko baten ebaluazioa eskatu ahal izango da, azken bosturtekoaren ebaluaziotik bost (5) urte edo gehiago igaro ondoren.

#### **Bigarrena.– Ebaluazioa eskatzeko bete beharrekoak**

a) Ebaluazioa eskatzeko, eskatzaileak gutxienez urteko 3 ECTSko irakaskuntza-karga egiaztatu beharko du ebaluazio-aldian zehar, Graduak, Masterreko eta Doktoregoko irakaskuntza ofizialetan, eta ebaluatutako aldian gutxiira 30 ECTSra iritsi beharko da. Aldiak etenakoak izan daitezke.

#### **Hirugarrena.– Eskabidea formalizatzea**

- a) Interesa duen pertsonak 2023eko otsailaren 20tik maiatzaren 19ra bitartean egin beharko du eskaera. Horretarako, Fakultateko DOCENTIA Ebaluazio Batzordera bideratutako DOCENTIA ebaluaziorako eskabide-orria (Ikusi I. eranskina) beteta aurkeztu beharko du.
- b) Eskabidearekin batera, autoebaluazioa ere aurkeztu beharko du eskatzaileak, Unibertsitatearen web-orrian argitaratuta dagoen DOCENTIA Ebaluazio Protokoloan jasota dagoen ereduaren arabera egingo duena.
- c) Eskatzaileak, egoki deritzon informazio gehigarriarekin osatu dezake autoebaluazio-dokumentua.
- d) Era berean, Ebaluazio Batzordeak, egoki baderitzo, irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko garrantzitsua deritzon informazioa eska diezaioke hautagaiari, dagokion justifikaziorik gabe.

#### **Laugarrena.– Eskabidearen edukia**

Datu pertsonalez gain, honako informazio hau adierazi beharko da eskabidean: eskatzaileak Fakultatearekin/Eskolarekin duen lotura, ebaluatu nahi duen bost (5) urteko aldia eta ebaluatuko diren bosturteko horretako irakasgaiak. Deialdi batean bosturteko bakar baten onarpena eskatu ahal izango da.

**Bosgarrena.– Ebaluaziorako irizpideak**

Mondragon Unibertsitatearen DOCENTIA programako Koordinazio Batzordeak onartutako irizpideak eta ebaluazio-prozedura erabiliko dituzte Ebaluazio Batzordeek euren egitekoa burutzeko. Unibertsitatearen webgunean eta Fakultateetako Intranetetan argitaratuta dagoen irakaskuntza-bosturtekoa ebaluatzeko eta ziurtatzeko Protokoloan daude jasota irizpideok eta ebaluazio-prozedura.

**Seigarrena.– Ebazpena**

- a) Ebaluazio-prozesuaren emaitza xehatua jakinaraziko zaio eskatzaileari, hau da, ebaluatutako dimentsio bakoitzean izan duen balorazioa eta lortutako balorazio orokorra, dimentsio guztietan eman dizkioten puntuen batuketa izango dena. Balorazioa ALDEKOA edo AURKAKOA izan den adieraziko zaio.

I. TALDE-LANA ETA LIDERGOA. Balorazioa: HOBETU DAITEKE / ONGI / OSO ONGI / BIKAIN

II. PLANGINTZA ETA GESTIOA. Balorazioa: HOBETU DAITEKE / ONGI / OSO ONGI / BIKAIN

III. IRAKASKUNTZAREN GARAPENA. Balorazioa: HOBETU DAITEKE / ONGI / OSO ONGI / BIKAIN

IV. IKASKUNTZAREN EMAITZAK. Balorazioa: HOBETU DAITEKE / ONGI / OSO ONGI / BIKAIN

V. IRAKASKUNTZAREN HOBEKUNTZA ETA BERRIKUNTZA. Balorazioa: HOBETU DAITEKE / ONGI / OSO ONGI / BIKAIN

BALORAZIO OROKORRA:

Puntuak guztira: XXXX puntu

Aldekoa

Aurkakoa

□

b) Eskatutako bosturtekoaren ebaluazio positiboa eskuratu ahal izateko, nahitaezkoa da honako eskakizun hauek betetzea:

- a) Gutxieneko puntuazioa lortzea alderdi hauetan:

*3.- Irakaskuntzaren garapena eta ikaskuntzaren ebaluazioa (20 puntu) eta 4.- Emaitzak prestakuntza-helburuen arabera (10 puntu)*

- b) Gutxienez 60 puntu lortzea dimentsio guztien artean.

c) Egindako ebaluazioaren kontra alegazioak aurkez daitezke, hamabost eguneko epean, emaitza jasotzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

d) Eskatzailearen Fakultateko DOCENTIA Ebaluazio Batzordeak erantzungo die alegazioei. Onartzen dituen edo ez adieraziko du eta, onartu ezean, horretarako arrazoiak azalduko ditu.

e) Ebaluazio-prozesua gehienaz ere bi (2) hilabeteko epean burutuko da, ebaluazio-eskaera egiteko epea bukatzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

f) Ebaluazioaren emaitza aurkakoa izan duten eskatzaileek hurrengo deialdietan berriro ere bosturteko berbera ebaluatzea eska dezakete, betiere beste irakasgai batzuk aukeratuta; edo beste bosturteko bat ebaluatzea eska dezakete, beste urte eta/edo irakasgai batzuk aukeratuta.

**Zazpigarrena.**– Deialdia argitaratzea

Deialdi hau Unibertsitatearen web-orrian argitaratuko da eskabideak aurkezteko epea hasi baino lau egun lehenago.

Arrasaten, 2023ko otsailaren 16ean

Vicente Atxa Uribe

Mondragon Unibertsitateko errektorea

**I. ERANSKINA.- Bosturtekoa ebaluatzeko eskabidea**

Izenpetzen duen honek, \_\_\_\_\_-k,  
NAN zenbakia \_\_\_\_\_ duenak, Mondragon  
Unibertsitateko \_\_\_\_\_ Eskolako/Fakultateko irakasle  
denak,

ESKATZEN DU:

Bere irakaskuntza-jardueraren EBALUAZIOA egin diezaioten, jarraian adierazten  
diren irakasgaietara eta XXXX, XXXX, XXXX, XXXX eta XXXX urteak hartzen dituen  
bosturtekoari dagokienez.

**Ebaluatuko diren irakasgaien zerrenda.**

Modulu /Materia/ Ikasgaia	ECTS kop.	Mota	Titulua	Ikasturtea
			<b>ECTSak guztira</b>	<b>XXXXX</b>

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_n, \_\_\_\_\_-ko \_\_\_\_\_  
-ren \_\_\_\_\_ (e)an.

Nori zuzendua: Goi-Eskola/Fakultateko DOCENTIA Ebaluazio Batzordeari

\_\_\_\_\_